



PILOTAZ EZ DAKIGUNA EZAGUTZEKO AUKERA

Anoetako Su-Berri Pilota Elkartea eta Valentziako Borboto herriko pilota eskola Pilota Asteburua ari dira ospatzen > 6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2009-06-28**

VILURTEA 1.740. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Beotibarren egin zuten atzo sari banaketa. Irudian, Azpiri eta Madariaga nagusien mailako irabazleak. A. IMAZ



Leaburun gaztetxoek ederki igaro zuten rokodromoan. R. CALVO

VI. HITZA PILOTA TXAPELKETAK BADITU IRABAZLEAK

TOLOSA Atzo eta herenegun jokatu ziren Tolosan eta Albizturren finalak; Beotibarren Andres Aramendiri omenaldia egin zioten 4-5

San Pedro jaiekin jai giroak ez du etenik eskualdean

TOLOSALDEA Areson, Asteasun, Leaburun eta Urkizun festa izango da gaurkoan ere 6



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



**ziklo guztiak
euskaraz**

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

GOI-MAILAKO ZIKLOAK Matrikula Ekainak 29tik Uztailak 3 arte

- Fabrikazio Mekanikako Produkzio Programaketa
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Metal Eraikuntza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

» **Uzturretik**

Iraitz Lizarraga

Ekaina amaitzean, San Joan gara pasa eta udan murgildu gara bete-bete, eta udarekin lotuta *oporren* gai atsegin eta korapilatsua. Geroz eta arruntagoa da oporrak igartzeko urruneko herrialdeetara bidaiak antolatzea: bidaia agentzietan milaka eta milaka oferta topatzen ditugu; moda modan daude *hirugarren mundura*

hurbiltzen gaituzten bidaiak: hirugarren mundua edo herrialde azpigaratuak edo garapen bidean daudenak; nola deitu oraindik orain kolonialismo basatiaren ondoriak jasaten dituzten herrialde hauei?

Bidaia hauek ordea, esperientzia paradoxikoak bizitu arazi dizkirate: oso erakargarria da udan 15 egunez herrialde hauetako batetara joatea, bertako miseriak ikusi, bertako paisaez eta jendeaz gozatu, argazkiak atera... txuria eta beltza pakete berean. Niri behintzat zapore arraroa geratu zait horrelako bidaiaren bat egin dudan bakoi-

tzean. Zeren bila noa ni? Besteen miseriak ezagutu eta gero nire etxeko erosotasunera itzultzeko!

Afrikara eginiko bidai bateko anekdota datorkit burura: Doktor Livingstone sindromeak jota kamioi-jeepbatean igo eta basoan barrera eskurtsioan abiatu nintzen turista koadrila batekin. Hango zuhaitzak, txoriak, tximuak eta abar ikusi ondoren herrixka antzeko batera iritsi ginen eta han non hasten diren kamioiaren gaineko nire lagunak, errege magoen kabalagan bezala, boligrafo eta goxokiak botatzen, herrixkako haurrak kamioiaren atzetik korrika

saioa egiten zuten bitartean; argazki exotiko-etnikoak ateratzeko momentu aproposena!

Egoera honen aurrean hitzik gaberegeratu nintzen, halako hutsune bat sentitu nuen eta oraindik orain esperientzia hau gogoratzean berdina sentitzen dut: Zer ote zegoen turista hauen buruan? «Pobres negritos» pentsatuko zuten, seguru, eta urteko azaina egin da gustura bueltatuko ziren etxera, munduko injustizia konpontzeko ahalegin guztiak egin zituztelakoan. Gainera, lagunei zeinen solidarioak diren erakusteko frogaz argazki eta guzti!

Benetan beldurgarria iruditzen zait bigarren inbasio kolonialista hau: turisten onurarako azpiegiturak hobetzen ari dira eta batzuen

ustez, herrialde hauengarapenean lagunduko du honek: gaurko ogia eta biharko... gose gehiago! Turismoaren onurak lehen mundura itzultzen dira eta ez da ezer egiten bertako benetako garapenerako. Arazoa, askoz ere sakonagoa da: kolonialismoarekin ezarri ziren subordinazio loturen jarraipena ematen den bitartean, ez dugu mundu justurik lortuko eta alpeirik ari gara geure kontzientziak lasaitzeko boligrafoak banatzen!

Oroitzapen gazi-gozaok utzi dizkirate niri behintzat mota honetako bidaiak: hori bai, beste mundu bat ere esistitzen dela ikusarazi didate, zentzu honetan neurri zilborraz haratago ikusten lauhau: turisten onurarako azpiegiturak hobetzen ari dira eta batzuen

K **Komikia****Gorka Salaberria**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

San Joan jaietako ajea nabaritu da larunbateroko azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna San Joan jaietako ajea puntu batekin hasi zen goizeko lehehengo orduetan. Goiza aurrera zihoala, eta eskainitako produktuak ikusita, gutxi izan ziren ajea alde batera utzita beraien erosketek ekin ez zietenak.

Zerrenda oso zabalda izan zen, eta nobedadeak ere izan genituen. Aurtengo lehenengo ibarrako piparrak orain dela pare bat aste aurkeztu zituzten, eta atzo mahai askotara zabaldu zen. Hauekin kanpo libreko lekak, tomatea, baba eta ilarra oraindik, eta zainzurria edo eta espinaka eta brokolia aipatze-koak dira.

Perretxiko zerrendak ere gora egin zuen atzo. Bertako produktu asko ikusi genuen. Onddoak, gibeburdina, ziza, ziza horia eta sende-ruela izan ziren salgai, eta asko izan ziren hauen inguruan galde-tzera gerturatu zirenak.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Alegria	1,20	-
Erromeroa	4,00	6,00
Hortentsia	10,00	-
Xarbota	4,00	6,00
Geranioa	2,00	-
Larrosa	10,50	-

» BERTAKO PRODUKTUAK

Fruta		
Errezil sagarra	0,60	2,00
Intxaurra	2,50	4,00
Urra	2,00	3,00

» Perretxikoak

Ziza horia	20,00	-
Onddoak	10,00	28,00
Ziza	10,00	36,00

» Barazkiak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	3,00	5,00
Ibarrako piparra	10,00	-
Bainak	4,00	-
Patata	1,00	1,50

» Besteak

Ogi biologikoa (500gr)	2,20	-
Arraultzak	2,50	-
Artisau ogia	2,80	3,70
Irasagarra	3,00	6,00

» Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardigazta	14,00	24,00

» PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Intxaurra	4,00	6,00
Tipula sorta	1,75	2,00
Letxua	1,00	-
Ahuntz gazta (200 gr)	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60

Tolosako jaietan ere emakumeak erasotutak

» Iritzia

Tolosaldeko Bilgune Feminista

Tolosako San Joan jaiak igaro dira dagoeneko eta zoritxarrez zapore garratza utzi digute jaiak, emakumeon aurkako eraso bat baino gehiagoren berri izan baitugu. Berriz ere emakume izateagatik erasotutak, kolpatuak, jipoiuak izan gara, kasu honetan festa giroan, beste hainbatetan etxean, lanean, kalean.

Emakumeok Tolosako eta Euskal Herri osoko jaietan, herriko taberna, txosna-gune eta kalean zehar askatasunez ibili nahi dugu, baina zoritxarrez ipurdia ukitzen digutenekin, gau osoan zehar txikile baten moduan itsasten zaizkigunekin, ezezkoak onartu nahi ez dituztenekin, objektu sexualtzat hartzen gaituztenekin eta kasurik larrienen bortsatzen gaituztenekin topo egin behar izaten dugu.

Honela, askatasunez bizi garenak gu izan beharrean, erasotutak leku dira gure sexualitatearen,

gure gorputzaren eta gure erabakien aurrean inpunitatez eta indarrez jokatzeko dutenak. Beraiek lasai eta askatasun osoz dabiltaza kalean zehar. Konplize ugari izan ohi dituzte gainera, bortxa egoeren aurrean beste aldera begiratu eta ezertxo ere esaten ez dietenak.

Bestalde, eraso hauen berri izan eta oraindik jaietan murgilduta geundenean izan genuen M. Puy Perez Lizarrako emakumearen gorpua azaldu zenaren berria; bere bikotekide ohiak erailda. 8 hila betetan egon da justiziak ahozkoa instituzioen utzikeria konplizearekin. Hiltzailea kalean, 4 aldiz beste arrazoi batzuegatik atxilotua, eta berriz ere kalean.

Egunerokoa da emakumeon aurkako indarkeria, atzo Irunen, herenegun Lizarran eta gaur Tolosan dugu gaitz hau. Indarkeria ordea ez da kasualitatez ematen den zerbaite, sistema kapitalista eta ondorioz patriarkar honen ondorio zuzena baizik.

Gaur egun oso modan dago emakumeon indarkeriaren aurka adierazpenak egitea, oso zuzena

da politikoki eraso baten aurrean ezadostasuna adieraztea, hauteskunde kanpainetan oso polita gertatzen da. Hori da hain zuzen herri honetako eta baita Tolosako politikariek egiten dutena: eurek bultzatzen duten sistemaren biktimak diren horiei laguntzatxoak eman erasotutak izan ondoren publikoki hitz politikak esanez. Euren sistema, erasoak ahalbideratzen dituen sistema elikatzen dute emakumeok babes errealki gabe utziz.

Beti aldarrikatu izan dugu Euskal Herri osoan gaitz honekin butatzeko beharrezko tresnak mar txan jar daitezela. Instituzioetatik ordea hitz politez gain partida presupuestariorik eta hura betearazteko tresnik gabeko legeak besterik ez zaizkigu iristen.

Eremu pribatuan, ekonomikotan, legegilean, sozialean, kulturean eta hezitzailean eragingo duen neurri integralak jarri behar dira martxan.

Baina emakumeok zapalduak, umiliatuak, erailak, gutxietsiak garen bitartean ezin dugu besteek egiten dutenari begira egon. Geure

artean bildu eta antolatu beharra daukagu. Geure dena zainduz, zapaltzen gaituen ororen aurka egingo dugu emakumeon arteko elkartasun eta konplizitate bultzatuz. Ez dugu bat gehiago pasatzen utziko. Ez emakumeok emakume garen aldetik, baina ezta jendarteak berak ere, parekidetasunean oinarrituriko etorkizuna nahi badugu Euskal Herriarentzat.

Eta erasotutak garen bitartean, erasotutak baztertu ditugu. Bai, ez ditugu onartuko kalean, tabernetan, gure inguruan. Erasotutak bazterketa soziala aktiboki bultzatuko dugu Euskal Herri parekide bat eraiki bitartean.

Guztion esku dago bestelako jendarte bat eraikitzea. Non gizon eta emakumeok eskubide berdintasunean oinarrituriko garen eta sekula ez den emakume bat sexu arrazoiengatik zapalduko. Dei egiten dizuegu bide horretan lan egin dezagun.

Erasoen aurrean, autodefentsa feminista!

Eraso sexistei erantzun!



Giro jatorra Herriko Pala Txapelketan

ANOETA • XIII. Herriko Pala Txapelketari bukaera «ezin hobea» eman zieten, herenegun, Kuku elkartearen egindako afariarekin. «Afariaren ondoren, ez zen abesti, bertso eta txisterik falta izan eta umorea izan zen nagusi ordu txikitari», azaldu dute. Manex Arrieta

eta Jon Ander Goikoetxea izan dira aurtengo txapel-dunak. Hauek naiz parte hartu duten guztiak zori ondu nahi izan dituzte antolatzaileek. «Baina dudarik gabe txapelketako gauzarik garrantzitsuenak, partiden aitzakiarekin sortu den giro jatorra izan da». AITOR LANDA

@ **Zurea da hitza.** Zure inguruko berriak sartzeko aukera duzu gure webgunean **Zurea da hitza** izeneko atalean. Argazkiak sartzeko aukera ere baduzu, gainera. Berriez gain, iritziak, esker-tzak, kexak... sartzeko ere bide ematen dizu atal honek. Gainera, sartuta dauden albisteenguztun zure iritzia edo erantzuna emateko aukera ere baduzu. Atal honetan sartzeko diren berriak, ostiraleko publikatzen ditugu egunkarian, **Zurea da hitza** izeneko atalaren barruan:

www.tolosaldekohitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

» Laburrak

Euskal presoenguztun mozioa eztabaidatuko dute

IBARRA • Euskal presoenguztun eskubideenguztun gainera mozioa eztabaidatuko dute etziko ohiko bilkuran, 09:00etan, Ibarako udaltxeko batzar aretoan. «Bere garaian 700 ibartarrek eman zioten atxikimendua gutxienguztun eskubideak exijitzen dituen testuarri», azaldu dute, presoenguztun eta sendeenguztun plenera agertzeko deia eginez.

Herri Arteko Zesta-Punta Txapelketako finalak, gaur

TOLOSA • Tolosako Beotibar Zesta-Punta taldeak Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketako finala jokatuko du gaur, 10:30etik aurrera, Zumaiaren aurka, Beotibar pilotalekuan. Kadete, jubenil eta helduen mailakoak ariko dira. Tolosak eta Zumaiak zazpigarren finala izango dute elkarren aurka.

Iragarki laburrak

» ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Ikarregietan pisua alokairuan, altzariek. 943 65 40 77 / 628 69 88 07 / 676 01 12 60.

» LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Garbiketa orokorrak, obra bukaerako garbiketarak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfombra. Deitu inongo konpromisorik gabe: 638 94 46 04 (Gurutze) / 695 70 82 71 (Belen).

FINALAK ETA OMENALDIA

VI. HITZA Pilota Txapelketa » Atzo eta herenegun txapelketaren sei mailatako finalak jokatu ziren Albizturren eta Tolosan.

ASERIMAZ
VI. Hitza Pilota Txapelketa atzo amaitu zen Beotibar pilotalekuan jokaturako hiru finalak. Aurrez, herenegun, beste hiru final jokatu zituzten Albizturren. Aurteko txapelketa ondo-erengo pilotariak dira: Salaberria-Zinkunegi; Egiguren-Peña; Mujika-Fruetsuena; Jaka; Eskurdia-Lukin eta Azpuri-Madariga. Antolatzaileak, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaririk eta Aurres-Saiz Pilota Eskola,

lak, sari banaketan VI. Hitza Txapelketa aurrera ateratzen lagundu duten herri eta Udal guztiak eskerrak eman zitakiten. **Joseba Eskurdia eta Jaka** Lehenengo urtean finalak egon ziren lau pilotari iritsi dira aurreneko urtean partidara. Hauen artean bikhurtu dute txapela. Jaka fitzartzarra eta Joseba Eskurdia. Sari banaketaren ostean, Andres Aramendiren omenaldia eotziren. Aurrerako delegatua epaitzeko epailea da Aramendi.

tzeko aukera, ordea, Mujika-Fruetsuena bikoteak kendu zitza. Beotibarren jende ugari elkartu zen atzokoan. Alde batera finalak ikusiko aukera ongoa da omenaldia. Partidak dagokionez, Jakaren erakustaldia azpimarratu behar da. Lizartzarra pilota nola mugitzen duen ikusteak merezi izan zuen Beotibarreko goizean. Eskurdia, huts egitea hasi baldin bazen ere, nagusi agertu zen eta ondorioz hirugarren txapela irabazi zuen jarraian. Sari banaketaren ostean, Andres Aramendiren omenaldia eotziren. Aurrerako delegatua epaitzeko epailea da Aramendi.

»» **EMAITZAK**

Benjaminak Salaberria-Zinkunegi Bergantinos-Zubeldia	Kadeteak (4 t'erdian) Jaka Aritzmuño	16 9	18 3
Alebinak Egiguren-Peña Zubeldia-Urdangarreta	Jubenilak Eskurdia-Lukin Urbieta-Zinkunegi	16 8	18 12
Infantilak Mujika-Fruetsuena Larrea-Iribarria	Seniorak Azpuri-Madariga Tellesosa-Mitelena	18 17	22 9



«Sakean egon da finalaren garailea»



«Bikoteak txapelketa hazitzo ona egon du»

Azpuri
22 urte
«Lauak gogor hasi gara. Nik best huts egitea egin ditut zati horretan. Gero apur bat zentratu naiz baina orokorrean finala eskasa izan da. Lagueren koadro inguruen bi arretarik labandua egiten girela ere esan behar dut. Ezin jarri ibili gara frontoan Mitelena eta bika. «Sakearen ongi aritu naiz partidaren bigarren zatian eta aldeka atera dugu. Gakoa honi izan da, sakea.»
«Hiru urte daramatzat HITZA jokatzeko eta orain arte haserari joan naiz kalera. Aurrean nafar bikotekin jarri naiz eta txapela. Ez dakit horrek zer esan nahit dueni.»

Madariga
22 urte
«Haberan lauak urduri kamar geunden: huts egiteak, ezin jarri... Behin partidaren sartuta hobera joan da finala, gogortu egin da. Bikotearekin hagitze ongi ibili naiz, bera ere ongi, hagitze ongi aritu baita txapelketa guztiz.»
«Nafar bikotekin irabazteak zer esan nahit duen ez dakit baina heldu den urtean ea berrie ere bikotekin jokatu eta gauza bera berraztatu dugun. Txapel bat beti da gauza garrantzitsua. Eskualdeak ez naiz sobera ongi ibili orain arte eta ilusio handia egiten dit. Batez ere HITZA irabazteak, fama duen txapelketa baita.»



Merezitako omenaldia Aramendiri

TOLOSAN » VI. Hitza Txapelketaren finalak jokatu ostean, atzo Beotibarren ekitaldia hunkigarria ospatu zuten. Andres Aramendiren egindako omenaldia. Nekane emaztearekin irten zen kantzara Aurrerako delegatua eta pilota epailea. Urte hauetan guztietan egindako lana eskertu nahi izan zioten horrela Aurrerako Saizeko pilotari eta kideak. »»»

Dena dago ikasliburuetan
ikasliburu guztiak eskuratzeko:
ekar
www.ekar.com

»» **KATEGORIA GUZTITAKO BESTE PILOTARI TXAPELDUNEN ERREAKZIOAK**



«Txapelketan gustura aritu naiz. Zinkunegirekin»



«Aitak beti dekadaz ibiltzen naizela esaten dit»



«Gauza gehiegi egin nahi eta gaitiki ateratu zaizkit»

Iker Salaberria
BENJAMINA
«Txapelketan gustura aritu naiz. Goizuetako naiz eta bikotea ez nuen esagutzen. Ongi jokatu gara. Asko jitzu du berak eta dekadaz ere ondo egiten ditut.»

Zinkunegi
BENJAMINA
«Finala ondo joan zen eta nahiko erraz irabazi genuen. Aitak-eta beti dekadaz ibiltzen naizela esaten didate. Salaberriarekin gustura aritu naiz. Oso ona da.»

Joseba Eskurdia
JUBENILA
«Huts askorekin baina finala polita izan da. Zati batean gauza gehiegi egin nahi nituen eta gaitiki ateratu zaizkit. Gero bigo hasi naiz eta 3 urtez jarraian txapela irabazi dut.»



«Galtzen joan ginen baina bikotuta jokatu nuen»



«Pozik baina eskua bikotuta jokatu nuen»



«Txapel garrantzitsua da eta harro nagor»

Andoni Mujika
INFANTILA
«Galtze joan ginen 15 eta 9. Ondoren bualte eman genion partidari. Asko borrokatu genuen. Txapela irabazteak poz handia ematen dit.»

Gaizka Inretagoiena
INFANTILA
«Pozik baina niri behintzat finala oso gogorra egin zitzaidan. Eskua bikotuta nuen eta beste atzelariak izugarriko golpeak ematen zizkion.»

Xabier Lukin
JUBENILA
«Aurreko oso gogorrak izan dira. Irabazten hasi gara baina harropatu egin gaituzte. Zanberdindu dugu eta hortik aurrera gogorrago jokatzeko hasi gara.»



Atzo Beotibarren jokaturako HITZA Txapelketaren finalak. »»»»



«Atzean jokatu arren, 4 t'erdian gustura nabili»

Sega » Mikel Alkorta, Arkaitz Artega, Andoni Gokoetxea eta Juanjoxe Lizaso ariko dira lehen Oiarzuaren 12.00etan.

A. IMAZ
Gipuzkoako Segur Txapelketaren finala gaur jokatuko dute Oiarzuen. Piloleta baserriko sorretan 12.00etan hasiko da lehia. Berria lau segulari izan da toku on ebakitzen ez baldin badute.

Nafarroako Herri Arteko Txapelketaren finala jokatu du Leitzak

Pilota » Amazabal pilotalekuan Uharteri 3-1 irabazi zion atzo Leitzak finalerdietako itzulera jokatu du. Seniarekin izan ezlik, beste partidak irabazi zituzten leitzarrek.

Finala uztailearen Sean
Nafarroako Herri Artekoaren finala uztailearen Sean jokatu du Iruleko Leitzak pilotalekuan. Aurkaria Iruleko Leitzak izango da.

Gidofaktoria izan nahi baduzu, etan gidofaktoria espazializatutako Sakekide lehenengo prestakuntza programa espezializatu.

gf
gidofaktoria
el espacio del quón

San Pedro egunaren atarian, jaia bazter askotan

Festak » Hemen dira sanpedroak eta ondorioz, eskualdeko hainbat herritan ospakizunetan ari dira.

ERREDAKZIOA

Bihar izango da San Pedro Eguna, baina Asteasun, Leaburun, Urkizu auzoan eta Areson asteburu guztian ari dira ospatzen sanpedroak.

Asteasun, esate baterako, koadrilen bazkaria izan zuten atzo herriko auzoen arteko Futbol Txapelketaren ondotik. Bazkaldu eta gero ohiko goitiberak izan ziren eta gauean Laiotzen erromeriak jarri zituen guztiak dantzan.

Leaburun, aldiz, atzo hasi zituzten jaiak. Suziria eta gero Mus Txapelketa izan zuten eta arratsaldean rokodromo puzgarria jarri zuten plazan umeentzako. Herri afaria ere egin zuten eta ondoren Xapre eta Zaharra trikitilariak aritu ziren. Jairik xumeenak, behar bada, Urkizu auzoarenak dira, baina herriko umeek, hala ere, primeran pasa zuten atzokoan. Suziriaren ondotik guztiak bildu eta bazkaria izan zuten frontoian eta gauean helduen txanda izan zen, auzoko afaria izan baitzuten bertolariak eta trikitilariak.

Areson, bere aldetik, gaurkoa izango da egun nagusia eta gosari batekin hasiko dute eguna. Ondoren, etxetara abiatuko dira eskuan aritzeko. Arratsaldean musika ere izango dute.



Asteasun koadrilen bazkaria izan zuten atzo. R. CALVO



Urkizun umeen bazkaria egin zuten frontoian. R. CALVO

» EGITARAUA HERRIZ HERRI

ASTEASU Gaur

- **11:00.** Pilota jaialdia: Esku Pilota Eskolako Txapelketako finala (alebinak) eta infantil mailako pilotarien arteko partida eskuz. Aitzondo Txirindulari Elkarteak antolatutako Pala Txapelketaren finala ere izango da.
- **Ondoren.** Sagardo dastaketa.
- **18:00.** Ikusgarri taldea; motozerraz egindako egur lanak.
- **19:00.** Erdizka Lauetan taldea; dantza saioa plazan.
- **23:00.** Izer eta Alabier.

Bihar, San Pedro eguna

- **10:00.** Diana.
- **11:00.** Meza nagusia.
- **Ondoren** Elizmendin hamaiketako, Soka Dantza eta esku pilotako finalak (aurrebenjaminak eta benjaminak).

- **18:00.** Asteasuko eskolak eskainitako trikitixa jaialdia plazan.
- **19:00.** Herriko musikarien kalejira.
- **22:30.** Bertso saioa frontoian.

Etzi, asteartea, Jubilatuen Eguna

- **11:00.** Meza.
- **Ondoren** Aitzondo Elkarteak hamaiketako eskainiko die herriko jubilatuei.
- **13:00.** Herri kirolak: aizkolariak (Jokin Alkizalete, Joseba Otaegi, Ugaitz Mugerza eta Ander Erasun) eta harri-jasotzaileak (Aimar Irigoien eta Izeta II).
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria Telleria eta Zeberio bertsolariekin eta Xapre eta Zaharra trikitilariekin.
- **18:00.** Herriko dantzariak.
- **19:00.** Laket taldearekin erromeria.

LEABURU Gaur

- **Goizean.** Suziriak.
- **11:00.** Meza San Pedro elizan.
- **Ondoren.** Hodei Truken emanaldia San Pedro elizan.
- **17:30.** Herriko dantzarien emanaldia.
- **18:30.** Herri kirol jaialdia Mieltxo Saralegi eta konpainiaren eskutik: Iparraldeko jolasak, harri-jasotzaileak eta trontzalariak.

Bihar, San Pedro eguna

- **Goizean.** Suziriak.
- **09:30.** Diana txistulariekin.
- **12:00.** Meza nagusia.
- **Jarraian.** Ohiko hamaiketako banatuko dute herriko ostatuan.
- **Ondoren.** Toka Txapelketa.
- **16:30.** Haur eta helduentzako jolasak.
- **Ondoren.** Txokolatada.

- **Iluntzean.** Barrikotea herriko plazan (norberak eraman behar du janaria).

URKIZU Gaur

- **11:00.** Patata tortila lehiaketa.
- **12:00.** Patata tortila dastaketa eta sagardo lehiaketa.
- **12:30.** Toka Txapelketa.
- **18:00.** Umeen jokoak eta txokolatada.
- **18:30.** Bolo lehiaketa.

Bihar, San Pedro eguna

- **11:00.** Meza nagusia
- **Ondoren.** Hamaiketako.

ARESO Gaur

- **Goizean.** Gosaria. Santua bildu eta etxetara eskean joango dira.
- **Arratsaldean.** Musika.

Pilota jokoekin gozatzeko aukera asteburuan

Anoeta » Su-Berri Pilota Elkarteak antolatuta, Pilota Asteburua ari dira ospatzen Escola de Pilota Borbotoko kideekin batera.

ERREDAKZIOA

Pilota jokamolde bitxiak ikusi ahal izan ziren atzokoan Anoetako bazter askotan, tartean raspall izenekoa, hain zuten. Izan ere, herriko Su-Berri Pilota Elkarteak Pilota Asteburua antolatu du eta Euskal Herriko pilota jokamoldeaz gain valentziarren pilota joko desberdinak ezagutzeko aukera ere izan zen Valentziako Borbotoko herriko pilota eskolako kideen eskutik.

Valentziako pilotariak, tartean Ana Giner

Valentziako Escola de Pilota Borbotoko kideak elastiko laranjekin zeuden eta Anoetako gazteenei euren pilota jokamoldeak erakustea aritu ziren egun osoan zehar. Raspall erakustaldia ere egin zuten



Pilotak egiten ere aritu ziren atzokoan Anoetako frontoian. R. CALVO

eta Borbotoko lau neska aritu ziren jokatzeko, tartean pilota eskolako entrenatzailea eta Valentziarren gaur egun dagoen neska pilotari onena ere bazelarik, Ana Giner, hain zuten.

Gaurkoan, aldiz, euskal pilota ikustera joango dira valentziarrak. 11:00etan Irungo Ramuntxo Berri trinketean jokoan den Trinketeko Emakumezkoen II. El Diario Vasco Sariko finalerdiak ikustera joan-



Joko desberdinetan aritu ziren anoetar gazteenak leku desberdinetan. R. CALVO

go dira, izan ere, partida hauetan egungo emakumezko pilotari onenatarikoak hartuko dute parte, Su-Berriko Itsaso Urkizu, Nagore Arozena eta Maider Mendizabal, tartean.

Ondoren, Zarautzen bertan bazkalduko dute eta indarberritu eta gero Borbotokoak eskuko profesionalen partida ikustera joango dira Zarautzeko Aritzataldeko pilotalekura.



CIESen ikerketaren arabera, 17.000 irakurle ditu egunero TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. HITZA

HITZA EAeko hirugarren egunkari irakurriena da CIESen datuen arabera

Hedabideak » 2009ko lehen ikerketaren arabera, HITZAK egunero 90.000 irakurle ditu Gipuzkoan eta Bizkaian.

ERREDAKZIOA

Komunikabideen zabalkundea neurtzen duen Espainiako CIESen enpresak urtean bi ikerketa egiten ditu egunkari irakurle kopurua kalkulatzeko, eta oraintsu ezagutarazi dituzte 2009ko lehen ikerketaren datuak. Horien arabera, HITZA da Euskal Autonomia Erki-degoan gehien irakurtzen den hirugarren egunkaria, gazteleraz argitaratzen diren *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkariaren atzetik. Zehazki, 90.000 irakurle zehazten dizkio HITZARI CIESen ikerketak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ren kasuan, 17.000 irakurle, ia zabaldu 1.000 gehiago.

Hitzentzat, datu onak dira benetan, tokian tokiko euskarazko komunikazio proiektua eskualdez eskualde gero eta sustraituagoa dagoela nabarmentzen baitute.

Gipuzkoako eta Bizkaiko zortzi eskualdetara iristen da CIESen ikerketaren arabera, HITZAK 68.000 irakurle ditu Gipuzkoan, eta beste 22.000 Bizkaian.

Irakurleen batez besteko kopurua kalkulatzeko, CIESek milaka telefono dei egiten ditu, ikerketa egiteko hautatuak azken egunean, azkenaldian edota azken asteotan zehin egunkari irakurri dituzten

galdetuz. Horrela zehazten dituzte egunkari batez besteko irakurleak. Hori horrela izanik, eta HITZA Gipuzkoako eta Bizkaiko eskualde guztietan ez dagoela kontuan hartuta, datuak positiboagoak dira Hitzentzat, presentzia duten eskualdeetan irakurle kopuru handia dutela erakusten baitute.

Gainera, HITZA astelehenetan ere ez da argitaratzen. Beraz, datuak EAeko eskualde guztietara estrapolatuko balira, eta astelehenetan ere argitaratuko balitz bezala kontuan hartuz gero, 90.000 irakurleen kopurua izugarri egingo luke gora.

Beha Bidasoa eta Internet kontuan hartu gabe

Horrez gain, aurtengo martxoan sortu den *Beha Bidasoako Hitza* ere ez dago sartuta CIESen 2009ko lehen ikerketan.

Irun, Hondarribia, Hendaia, Pausu eta Biriaturko berri ematen duen egunkari berria kontuan hartuta, milaka irakurle gehiago izango litzuke HITZAK datu horietan.

Era berean, Hitza bakoitzaren webguneak egunero izaten dituen bisitak kontuan hartuta, irakurle kopurua ere gora egingo luke.

Gipuzkoako bigarrena

Gipuzkoako eta Leitzaldeko HITZAK datu esanguratsuenak dituen herrialdea. Bertan, Tolosaldean, Urola Kostara, Goierriara, Oarsoaldera, Donostiarra eta Behe Bidasoara iristen da HITZA, eta horrek herrialdeko bigarren egunkari iraku-

rriena izatera eraman du azken urteotan. 68.000 irakurle ditu HITZAK Gipuzkoan.

Tolosaldean eta Leitzaldean ere gehitu

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzarentzat ere datu onak dira, izan ere, pasa den urteko datuekin alderatuz, 1.000 irakurle gehiago zehazten dituzte CIESen datuek, 17.000, hain zuzen. Horiek, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunero irakurtzen dutenak lirake. Hala, HITZA noizbait irakurtzen dutenak 20.000 dira ikerketa horren arabera.

» CIES IKERKETA 2009

EAE

- **Hitza.** 90.000.
- **Berria.** 64.000.
- **El Correo.** 469.000.
- **Diario Vasco.** 285.000.
- **Gara.** 87.000.
- **Deia.** 77.000.
- **El Pais.** 56.000.
- **El Mundo.** 30.000.
- **Noticias de Gipuzkoa.** 25.000.
- **Diario de Noticias de Alava.** 25.000.

Gipuzkoa

- **Hitza.** 68.000.
- **Berria.** 34.000.
- **El Correo.** 6.000.
- **Diario Vasco.** 282.000.
- **Gara.** 43.000.
- **Deia.** 1.000.
- **El Pais.** 15.000.
- **El Mundo.** 4.000.
- **Noticias de Gipuzkoa.** 25.000.



Blusen Eguneko bazkaria plazan

ZIZURKIL » Koadrila asko bildu zen atzo Zizurkilgo Festa Batzordeak antolatutako Blusen Egunean eta eskatu bezala, gainera, blusak jantzita joan ziren ia guztiak. Bazkaria izan zuten lehenik Pasmus Plazan eta ondoren, jokoak ere izan zituzten. Bukatzerakoan Bonberenea Txarangaren musikarekin ibili ziren koadrila guztiak kalejiran. A. IMAZ



Gerontologikoa «hobetzeko» moduak

TOLOSA » Tolosako Zahartzaro Duina plataformak «gerontologikoa hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen hainbat proposamen» plazaratu zituen atzo, gerontologiko zaharreen egindako batzar informatiboan. Jende ugari bildu zen eta besteren artean proposamen hauek egin zituzten: egoitzaren kafetegia «negozioa egiteko baino» egoiliarren eta hauen familiarren eta lagunen elkargune izatea, adinekoen elkarte lokalak izatea bertan eta herritarren parte-hartzea bultzatzea. R. CALVO



Eztarriak sagardoarekin bustiz

TOLOSA » Sanjoanek bukatu badira ere atzo oraindik ere bazen arrastorik Tolosan, izan ere Berdura Plazan urteroko sanjoanetako sagardo txapelketa izan zen, Batasuna elkarteak antolatzen duena, hain zuzen. Jende asko bildu zen 19:00etatik aurrera plazan sagardotegi desberdinek jarritako hogeitik gora kupeletako sagardoak dastatzera. R. CALVO



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



A Agenda

Deialdiak

- **Leitza.** Gorritarango Eguna: 10:00etan meza, ondoren herri kirolak (sokatoria eta umeentzako jokoak), 14:00etan bazkaria, 17:00etan mus txapelketa, 19:00etan dantzaldia Angel Agezralderen eskutik, 20:00etan Txinurrin Txapelketa, 20:30ean zozketa eta ondoren txokolata de- nentzat.
- **Asteasu.** Santamañako IX. Igoera korrika uztailaren 12an 10:30ean (7 km) Izen-ematea, 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan.
- **Tolosa.** Ekaina eta uztailerako zine bonuak salgai daude Leidor aretoan 11:00etatik 13:00etara, 17:00etatik 19:00etara eta saioen aurretik.
- **Tolosa.** Soldadura, mekanizata (torno, fresadora, taladro edo CNC) eta ostalaritza ikastaroak antolatu ditu Peñascal fundazioak datorren ikasturterako 16 eta 18 urteko gazteentzat, 2.000 ordukoak (500 orduko praktikak). Izen-ematea, fundazioan.

Erakusketa

- **Alegia.** German Intxaustik eta bere aita Ricardok ateratako herriko argazki zaharrak Jubilatuen tabernan.

- **Tolosa.** Kultur tailerretako ikasle erakusketa Aranburu Jauregian uztailak 4ra arte ikusgai.

Mendia

- **Tolosa.** Pirinioetara irteera antolatuta du Alpino Uzturrek uztailaren 4 eta 5erako, Ardiden (2.988 m) eta Bernat Barrau (2.793 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5. 943 652789, alpinouzture@hotmail.com).

Zinema

- **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 17:00etan, *Noche en el museo 2*; 19:30ean, *Sukalde kontuak*. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Genova* filma.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
 - **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.
- Bihar**
- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
 - **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunikuzinik.

Herriak abesten dituen kantuak

TOLOSA ■ Tolosa Kantari herri ekimenak atzo bete zuen lehen urtea eta hori dela-eta hileroko hitzorduaz gain, bazkari herrikoa ere izan zuten Abastosen. Bete bezala 12:00etan Tontokalen bildutakoan, gainera,

urte beterekin batera kaleratu duten liburuxka saldu zuten. Tolosa Kantariko liburuxkak Euskal Herriko 100 abestiren letrak biltzen ditu eta bost euroren truke eskuratu daiteke. r.calvo

Ikaskideak gurekin sartzen dira
MARIKOIA deitzen digute...

gehitu
Kantari Herriko Ekimenak, gaur, ostiratsuetan eta iganduetan abesten
www.gehitu.net

Informazioa eta laguntza
943 45 17 22
infosis@gehitu.net

28
gay lesbiana transexualen aisakapenerako eguna
STONEWALL 40 URTE ONDOREN

harrotasuna mugarik gabe

* manifestazioa
datorren ostirala, irailaren 27, 19:00etan, 19:00etan

vehgam euskal herriko gay-les elkaren mugimendua
www.vehgam.org